

ERTZEKO EUSKALGINTZA

Euskara egoera ahulenean dagoen eskualdeetako erronkak eta jarduna

Euskal herrialdeen eta eskualdeen geografia, soziologia eta administrazio politikoak euskalgintzaren erronkak baldintzatzen ditu. Euskararekiko atxikimendua oro har sendoa da euskal lurralde guztietan, oztopoak oztopo. Izan ere, goian esandako faktoreek euskara ikasteko eta euskarazko harremanak izateko oztopo izaten dira maiz.

Korrikaren atarian, eta atxikimendu hori nabari den egunotan, Hego Euskal Herriko lau probintzietako AEK-ko zenbait ordezkariak eta Ipar Euskal Herriko batek «ertzetan» egiten duten lanaren eta bertatik bertara sumatzen dituzten arazoen berri eman diete GAUR8ko irakurleei.

 **KORRIKA** / Xabier Izaga, Nerea Goti eta Amagoia Mujika

Euskararen irakaskuntzak lekuan lekuko oztopoei aurre egin behar die, geografiak baldintzaturiko egoeratik lege xedapenetaraino, baita administrazioen jarrera zabar edo epelari ere kasu askotan. Euskara egoera ahulenean dagoen zenbait bazterretako AEK-ko ordezkariak beren erronken, oztopoen eta pozen berri dakarte.

Oro har herritarren jarrera euskararen aldekoa da eskualde guztietan, eta motibazioaz denaz bezainbatean, euskaltegira joateko arrazoi nagusia euskaraz komunikatzeko gaitasuna lortzea nahiz transmisioan laguntzea da. Euskararen lege estatua eta administrazioen jarrera, ordea, ez datoz bat jarrera

horrekin, ezta herri euskalgintzaren ahaleginarekin ere, eta nabarmena da zailtasunak gainditzeko baliabide falta.

Euskararen lege egoerak talsa egiten du euskararekiko atxikimenduari, irakaskuntza publikoak euskarazko eredu eraginkorrik eskaintzen ez duen eskualdeetako euskara eskole-

tan gazteen presentzia handia izateak erakusten duen bezala.

Bestalde, euskara ikastea zama ekonomiko handia izan daiteke. Doakotasuna aspaldiko aldarrikapena da baina, lekuan lekuko laguntzak gorabehera, oraindik ez dago indarrean inongo administrazioen pean.

Oraintsu albiste izan dira UEMAko udalerrietako erabilera-
ren gaineko datuak eta, kezka sorrazten dutenak alde batera utzita, bada bat erabilerari dago-kionez emakumeen jarreraren gainekoa, AEK-ko irakasle eta kudeatzaile hauek jakinarazita-ko datuekin bat datorrena: emakumeen euskararekiko jarrera aktiboagoa da. Arabako «ertzeta-ko» taldeetan diharduten ikasleen artean emakumeak gizonak halako bi izatea lagin txiki bat baino ez da.

Ezkerreko irudian, Korrikaren 21. edizioaren amaiera, Gasteizen; eskuinean, aurtengo Korrika Kulturalaren aurkezpena, Derion. Endika PORTILLO - Raul BOGAJO | FOKU

